

KRISTOREN PASIOA ETA HERIOTZA ASTE SAINDUAN. AZKOITIKO ETA SEGURAKO PASOAK.

Ignacio Cendoya Echániz

Cuadernos de Sección. Artes Plásticas y Documentales 8. (1991), p. 197-216
ISSN 0212-3215
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

Gipuzkoako zenbait herritan Aste Santuko prosezio tradizionalak mantentzen dira bete-betean. Azcoitia eta Segura ditugu herri ezagunenetariko bi. Kristoren Pasio eta heriotzaren narrazio ziklo desberdinetan kokaturiko paso guztien katalogo baloratzailerik aurkezten dugu artikulua honetan. Mende honetan buruturiko multzo eskultorikoez gainera, Aro Modernoko irudi desberdinak ere iritsi dira gureganara. Hauen artean, aipagarri dira Segurako San Juan Bataiatzailerik eta Azkoitiko Pietateak nahiz Kristo lurtean. Sentimentuak piztea dute helburu. Horrexegatik aukeratzen dira une dramatikoak. Kanpokaldeko liturgia honen euskarri nagusia artelana dugu berriz ere.

Son diversas las villas guipuzcoanas que mantienen plenamente las tradicionales procesiones de Semana Santa. Azcoitia y Segura son dos de las más conocidas. En el presente artículo realizamos un catálogo valorativo de todos sus pasos, encuadrados dentro de los diferentes ciclos narrativos de la Pasión y muerte de Cristo. Aunque son varios los grupos escultóricos realizados durante este siglo, perviven diferentes imágenes de Época Moderna. Entre éstas, cabe destacar el San Juan Bautista de Segura y el Cristo yacente y la Piedad de Azcoitia. Se busca el sentimiento. Por ello se escogen los momentos más dramáticos. Esta liturgia exterior encuentra su más firme apoyo, una vez más, en la obra de arte.

There are several towns in Guipuzcoa that still keep the traditional religious processions in the Holy Week, being Azcoitia and Segura two of the most known. In this article a catalogue of all their pasos is made as well as their valuation, covering the mentioned pasos the different narrative styles of the Passion. Even if the sculptural groups made in this century are various, still remain different images of the modern period. Between these last ones, the most remarkable are St. John the Baptist (Segura), the lying Christ and the Pity (Azcoitia). The most dramatic moments are chosen to get the sought end: sentiment. One more time, this external liturgy gets its most firm help in a work of art.

SARRERA

Betidanik izan dute garrantzi handia Aste Sainduko prozesioek gure herrietan. Trento-ko kontzilioaren ondorioz sortuak, kaleetan zehar ikusi izan ditugu, isiltasun osoz, Kristoren pasioa, heriotza eta berbizkundera gogoratuz. Tristuraz betetako egunak dira fededunentzat, gogora ekartzen bait digute nola gure erruz, gizakiaren bekatuagatik, Kristok bere bizitza eman beharra izan zuen. Halere, gurutzifikapenaren ondoren, berbizkundera suertatuko da, eta, modu honetan, poza berreskuratuko dugu, urtero ospatzen den mirakulu honen partaide izan garelako berriro ere. Beraz, tradizioz betetako ospakizun honi buruz hitz egingo dugu, eta konkretuki, artearekin lotura duen aspektu bati buruz, Aste Sainduko pasoa. Hortarako, adibide gisa Gipuzkoako bi herrietan ateratzen direnak aurkeztuko ditugu, baina lehenbiziz, jatorriaz ere mintzatu beharko gara.

Egia esan, kofradien jatorria oso garbi ez badago ere, XIII. mendeko penitenteengandik hasi beharko genukeelarik (1), pasoa, aipatutako Trento-ko kontzilio horren ondorioz azalduko dira. Bere azken sesioan, 1563ko Abenduaren 3an eta 4an ospatua, irudi erlijiosoaren arazoa aztertu zen, ondorioz *De invocatione, veneratione et reliquiis Sanctorum* dekretua ateraz. Arteak pedagogikoa izan behar du, apaizen sermoiak azpimarratzeko erabiliko delarik; esan genezake, irudiak behartsuen biblia bat izango direla. Baina bete-behar hori kontu handiz egin beharko da; dekretu horrek garrantzi handia ematen dio deduaren arazoari eta bere aginduz irudi guztiak aztertuak izango dira aldareetan kokatu baino lehenago. Horrela, sainduarekin zerikusirik ez zuen lotsagabekeriarik aldendua izango zen ziurtasuna lortuko da.

Testuinguru honen barnean aztertu behar dugu pasoa esannahia. Kontuan hartu beharrekoa da «paso» hitza latinetik datorrigula, «pasus» hitzetik hain zuzen ere, «sufrimendua» adierazten duelarik. Bere sorrera, XVI. mendearen bukaeraldean eta XVII. mendearen hasieran izanez, garbi dago Espainiko eskulturaren errealismoarekin guztiz lotuta azaltzen zaigula. Eskultura polikromatu hau zela egokiena horrelako gaiak errepresentatzeko, garbi azaltzen zaigu sufrimenduaren irudi horiek ikusterakoan. Giharreak eta zainak markatuak, begiak bere betzulotik aterata, minez betetako aurpegiak; hauek dira eskultura honen ezaugarriak, eta geroko irudi asko ikusiko baditugu ere, gehienak horrelakoak izango dira. Zer esanik ez dago, hau zen fededunen bihotzetara heltzeko modu egokiena.

Irudi horiek egiteko, liburu ikonografikoak eta sainduen bizitzei buruzkoak beharrezkoak izango dira. Besteak beste, gogoratu beharrezkoak dira *De las excelencias de Nuestra Señora* (1606), Rivadeneirak egina; *Adnotaciones et meditationes in evangelia...* (1607),

(1) Gai honi buruz, aipatzekoa da SANCHEZ HERRERO, J. «Las cofradías de Semana Santa de Sevilla durante la modernidad. Siglos xv a xvii», *Las cofradías de Sevilla en la modernidad* liburua barnean. Sibia. 1988. 29-97 orriak.

Nadal apaizarena; *Commentariorum in Iob* liburuaren ilustrazioak, Juan de Pineda apaizarena; *Hermosura Corporal de la Madre de Dios* (1621), frai Juan de las Ruelasena; *Flos Sanctorum* (1675), Villegas eta Rivadeneyrak egindakoak, etab. Honelako liburuak erabiliak izaten baziren ere, ezin gara marrazkiaz ahaztu, eskuz esku erabili bait ziren. Edozein kasutan ere, ez da komeni gehiegizko garrantzia ematea aipatu berri ditugun hauei, askotan eskultoreak agindutakoa besterik ez bait zuen egiten, edo ezagututakoa imitatu.

Andaluziako, Gaztelako eta Murziako pasoak nahiko ezagunak baditugu ere (2), ez da horrelakorik gertatzen Euskal Herrikoekin, Bizkaikoei eta Nafarroakoei buruz zerbait idatzi bada ere (3). Beraz, interesgarria iruditzen zaigu Azkoitiko era Segurako paso hauek hemen aurkeztea, probintziako prozesio ezagunenetakoa bertan ospatzen bait dira. Irudi horiek azaltzeko, Palomero Paramok eskeintzen digun haria erabiliko dugu batipat (4), titulu hauekin zatatuz irudiak: Pasioa baino lehenagoko gertakizunak, Kristo gurutzarekin, Gurutzifikatua eta Atsekabea. Irudi asko gure mendekoak badira ere, irakurketa ikonografiko baten barnean kokaturik daudenez, aipatutako zikloa osatzeko balioko digute. Berbizkudearen irudirik ez dugunez, ziklo hori osagabe izango dugula kontuan hartu behar dugu.

AZKOITIKO ETA SEGURAKO ASTE SAINDUKO PASOAK

Pasioa baino lehenagoko gertakizunak: atxilotzea eta prozesua

Atxilotzea eta prozesua gertatu aurretik, gogoratu beharrezkoak dira Jerusalem-eko Sarrera eta Azken Afaria, ikusiko ditugun pasoetan ez azaldu arren. Bestalde, Atxilotzea gertatu aurretik Olibondoan Baratzean Otoitza izan zen. Jerusalem-etik hurbil zegoen baratz horretara joan zen Jesus bere Apostoluekin, eta hauek utzi eta gero Aitari otoitz egin zion. Ikonografiari dagokionez, badira ezberdintasunak, zeren Matheok (26,39) eta Markosek (14,35) Kristok makurtuta egiten zuela otoitz esaten badigute ere, Lukasek (22,41)

(2) PALOMERO PARAMO, J.M. *La imaginaria procesional sevillana: Misterios, Nazarenos y Cristos*. Sibilía, 1987 (2.edicioa); GONZALEZ GOMEZ, J.M. eta RODA PEÑA, J. «Imagineros e imágenes de la Semana Santa sevillana (1563-1763)», *Las cofradías de Sevilla en la modernidad* liburuan, Sibilía, 1988, 99-279 orr. ARANDA DONCEL, J. *Historia de la Semana Santa de Castro del Río (1564-1900)*, Córdoba, 1987. ORTEGA Y SACRISTA, R. *Expiración. Cien años de una cofradía de Jaén*. Jaén, 1988. GOMEZ LARA, M. J. eta JIMENEZ BARRIENTOS, J. *Semana Santa-fiesta mayor en Sevilla*, Sibilía, 1990.

AGAPITO Y REVILLA, J. *Las cofradías, las procesiones y los pasos de Semana Santa en Valladolid*. Valladolid, 1925. MARTIN GONZALEZ, J.J. «Los pasos de Semana Santa en Valladolid y sus relaciones con el dibujo y la pintura», B.S.A.A. Valladolid, 1953. VAL, J.D. eta CANTALAPIEDRA, F. *Semana Santa en Valladolid. Pagos-cofradías-imagineros*. Valladolid, 1974. ERAKUSKETA, *Gregorio Fernández y la Semana Santa de Valladolid*. Valladolid, 1986.

PARDO CANALIS, E. *Francisco Salzillo*. Madrid, 1965. MORALES MARIN, J.L. *El arte de Francisco Salzillo*. Murztzia, 1975.

Besteak beste, nazioaren mailan ospatu da kofradiei buruz kongresu bat, 1987. Otsailan, Zamoran hain zuzen ere.

(3) LOPEZ ECHEVARRIETA, A. *Semana Santa en Vizcaya*. Bilbo, 1979. GARCIA GAINZA, M.C. «Pasos e imágenes procesionales del primer cuarto del siglo XVII», B.S.A.A. Valladolid, 1980; 425-434 orr. FERNANDEZ GRACIA, R. «Escultores barrocos de pasos procesionales en Navarra», «Diario de Navarra», egunkarian.

Iparraldean jarraituz, aipatzekoa da VELEZ CHAURRI, J.J. eta DIEZ JAVIZ, C. «Tradiciones mirandesas: la Semana Santa en Miranda. Pasos procesionales en la iglesia de Santa María de Altamira». *López de Gámiz*, VI. Miranda, 1985. 1-6 orr.

(4) PALOMERO PARAMO, J.M. *Op. cit.* 75-186 orr. Berak erabiltzen duen sailketa onartuko dugu gure estudioan. Erabiliiko ditugunez gain, egileak beste bi azaltzen dizkigu: Gurutzifikaturako prestaketat eta gloriifikazioa. Zorixarrez, ezin dugu apartatu horiekin ondo datorren obrarik aurkeztu.

berriz, Kristo belaunikatuta zegoela dio. Eskultoreek batipat asken modu hau onartu zuten, Azkoitiko eta Segurako pasoetan ere horrela gertatzen delarik.

Getsemaniko agonia pasa eta gero, Jesusek bere Apostoluak iratzartuko ditu, eta berehala Judas iritsiko da, Atxilotzea gertatuz. Prozesuaren hasiera gertatuko da orain, prozesu bikoitza, zeren Jesusek administrazio erromatarraren eta juduaren aurrean azaldu beharko du. Imajina guztiak ez direnez agertzen, aipatutako herrietan ateratzen direnei buruz hitz egingo dugu bakarrik. Prozesu erlijiosoaren ondoren, politikoa izango da. Pilatosen aginduz, Jesus flagelatua izango da, 40 kolpe jasoz, Seguran ikusiko dugun bezala. Dona Brigidak zioenez, berrix, Jesusek 5.475 kolpe jaso izango zituen. Bi motatakoak izan dira erabilitako kolomak, bata normala, eta bestea behea, azken hau Barrokoan erabiltzen hasten delarik. Honela gertatzen da bi herrietan, Seguran flagelaldia azaltzen delarik eta Azkoitian Kristo kolomara lotuta.

Flagelatua izanda, Jesusek arantzeko koroa jasoko du, bere borraroen burlak entzunez. Hauek, kanabera bat jarriko diote eskuartean, zetro bat izango baliuz bezala. Une hori aukeratu du Azkoitiko irudiaren egileak, Kristo lotuta eta kanabera hori eutsiz aurkezten digularik. Ondoren, Pilatosek jendearen aurrera ekarriko du Salbatzailea, beraiei azalduz. Azkoitian eta Seguran baditugu une horren berri ematen diguten pasoak, biak mende honetakoak. Honela bukatuko genuke ziklo hau, orain bere barnean kokatzen diren irudiak aztertuko ditugularik.

Olibondoen Baratzean Otoitza: Azkoitian eta Seguran, bietan, gai honi buruzko pasoak baditugu, aldaketa handirik gabeko irudiak. Kristo belaunikatuta dago aingeru baten aurrean, azken hau altuagoa dagoelarik eta kaliza eskaintzen ari zaiolarik. Beraz, garbi dago aukeratutako unea, Aitari «zuk guztia desakezu; ken Niregandik kaliza hau. Baina ez bedi egin Nik nahi dudana; Zuk nahi duzuna baizik» (Markos; 14,36) esaten dionean. Mende honetako irudiak dira eta, gure ustez, Azkoitikoa hobea da. Herri horretako pasoaren Kristoren irudiak 1,23 m. neurtzen du eta Aingeruak, berrix, 0,75 m. Lasaitasun handiagoa erakusten duen irudia dugu, ezkerreko eskua luzatzen diolarik aingeruari. «Potencias» izenekoa badarama ere buruan, Segurakoak koroa bat dauka, azken honek bere burua gora begira daukalarik, edertasun handiko aingeru bati begira. Edozein kasutan ere, ez da beharrezko hunkipena lortu irudi hauetan, Segurakoak bizi gehiago badu ere.

Flagelaldia: Flagelaldiko une dramatikoena aukeratu du Segurako pasoaren egileak. Mende honetako pasoa izanik, halere irauten dute oraindik Aro Berrian erabiltzen ziren baliabide ikonografiko batzu. Adibidez, talde hau osatzen duten pertsonaien aurpegiak ikusi besterik ez daukagu (1. lamina), borraroenak askoz ere itsusiagoak direlarik. Honela, itsustasunak gaiztotasuna erakusten digu, eta alderantziz, Kristoren edertasunak bere ontasuna. Kristo koloma behe batetara lotua, etsipenez betetako begirada du, ezagutzen duen etorkizuna onartuz bezala. Borreroak, berrix, bera jotzera doaz, bere zartailuak jasota dituztelarik. Gregorio Fernández-ek egindako pasoarekin (5) gonbaratuz, Segurakoak askoz ere adierazkortasun gutxiago duela ikusi dezakegu, min fisikoaren sentimendua falta delarik. Sufrimendua badago, bai, baina ez da fisikoa, psikologikoa baizik eta Kristoren begiradak sortzen du batipat. Eskultorearen azertu handiena hori izango litzateke.

(5) ERAKUSKETA, *Gregorio Fernández y la...* Guri axola zaigun argazkia 38. orrian dago. Paso hau osatzen zuten irudiei buruz oraindik zalantzak badira ere, gure gonbaraketarako balioko du.




1. Lamina Segura. Flagelaldia.

Azkoitiko irudiak, Kristo kolomara lotuta azaltzen digu, «flagelaldia» bezala ere deitu dezakeguna. Benetan irudi ederra dugu hau (2. lámina), eta bere neurriak 1,73 m. dira. Kristalezko begiak ditu eta, polikromiari dagokionez, leundurazkoa du. Zalantzak sortzen dizkigun irudia izan arren, badirudi ez dela —hasiera batetan pentsa dezakegun bezala— XVIII. mendearen bukaeraldekoa, mende honen hasieran Valentziatik ekarritakoa baik (6). Felipe de Arizmendi-ren *Ecce Homo*arekin gonbaratzen badugu, Donostiko Santa Marian dagoena (7), gorputzaren eta tolesduraren tratamendu ezberdinez konturatuko gara. Berdin gertatzen da, XVIII. mende horretako eskultore onenaren lan batekin gonbaratzen badugu, Salvador Carmonaren desagertutako gai berdineko obra, Madriliko Olivareko otoiategian zegoen Kristoa (8). Edozein kasutan ere, mende honetakoa ez zaigu iruditzen, XIX. goa izan dezakelarik eta kalitate handikoa dela azpimarratuko genukelarik.

(6) ARAMBARRI ETXANIZ, S. *Azkoitia-ko Euskal Errl ertiarekiko miaketa saioa* Donostia, 1983. 208. orr. Liburu hau, oso baliagarria ez bada ere, pasoen datuei dagokionez nahiko interesgarria suertatzen zaigu.

(7) ALTUNA, J.; ARRAZOLA, M.A.;... *Euskal Artea* Donosti, 1984. 169orr.

(8) Asko idatzi bada ere eskultore honi buruz, orain aipatuko dugun liburuaz azpimarratuko genuke. GARCIA GAINZA, M.C. *El escultor Luis Salvador Carmona*. Iruña, 1990. 63. eta 133. orr. Gai berdinari buruz atera berria den liburu bat ere aipatuko dugu: MARTIN GONZALEZ, J.J. *Luis Salvador Carmona Escultor y Académico*. Madril, 1990. 112, 113 eta 117 orr.



2. Lamina Azkoitia. Krisito kolomara lotuta.

Ecce Homo: Une hau azaltzen digun irudia Azkoitian bakarrik aurkitzen dugu. Bertako biztanle batek egindako lana dugu, Mikel Oñederrak hain zuzen ere, 1946. urtean. Bere altuera 1,82 m. da eta egitura oneko lana dugu. Gorputzaren tratamendua azpimarratuko genuke, sahietsak ere markatuak bait ditu, aurpegiaren sentimendua oso egokia delarik. Badirudi Kristo bere Aitari begira dagoela, etsipena azalduz eta ia ekstasian egongo balitz bezala. Oihala, berriz, zurrunezia da, mugimendurik gabekoa. Badago kontrastasan bat oihala eta gorputzaren artean, azken honen egiturak Espainiko eskultura errealistarekin zerikusi handiagoa duelarik. Kalitatezko lana izanik, fededunak hunkitzeko nahi horretan efektiboa dela kontsideratu behar dugu.

Pilatok Kristo herriaren aurrean aurkezten du: Une honetan, Pilatok Jesus judutarren aurrera ateratzen du, honelako hau esanez, «Hemen dakarkizuet berriz ere gizon hau, jakin dezazuen Nik ez diodala errurik aurkitzen» (Joan; 19,4). Horrela gertatzen da Azkoitiko pasoa, Kerejeta eskultoreak egindakoa (9). Pilatok, ezkerrean kokatuta dagoelarik, bere besoak luzatzen ditu atzera, Jesus dagoen lekura, hau aurkeztuz. Salbatzaileak, berriz, eskuak gurutzatuta ditu eta kontzentratuta dagoela dirudi Pilatoren hitzak entzunez. Lehenengoak, mantu berdea darama eta Jesussek zuria. la paso guztietan gertatzen den bezala, eskuak eta aurpegiak dira interesgarrienak, azken hauetan aurkitzen bait dugu irudiek adierazten diguna. Efektiboa bada ere, ez da kalitatezko lana.

Segurakoak ere gai berdina du, soldadu erromatar bat ere azaltzen delarik eta Jesus arantzezko koroa daramalarik, zeren Joanek esaten digunez «Atera zen, bada, Jesus, buruan arantzezko koroa eta norbaldan purpurazko soinganekoa zuela» (Joan; 19,5). Jesus erdian dago, kanabera bat duelarik, *Ecce Homo* bezala azaltzen den ikonografia berdinarekin. Taldearen barnean azpimarragarriena irudi hau da, beste biak ez bait dute behar den adierazkortasuna. Mende honetako lana dela nahiko garbi dago, irudien tratamenduan ikusi dezakegunez.

Kristo gurutzearekin

Golgota bidean Jesussek gurutzea sorbaldan eramaten duen pasoa dugu hau. Ebanjelioak irakurtzen baditugu, ezberdintasunak badirela konturatuko gara, bi eredu ikonografiko sortu zituztenak. Alde batetik, Joanek dionez, Jesussek berak bakarrik igo zuen gurutzea, «eta Hura, gurutzea sorbaldan zeramala “Buruhezurtegi” —heberkeraz, berriz, Golgota— izeneko lekura atera zen» (Joan; 19,17). Besteek diotenez, berriz, Simon izeneko zirenear batek lagundu zion. Honela esaten digute: «Ateratzean, Simon izeneko zirenear gizon bat topatu zuten, eta gurutzea eramatera behartu» (Mateo; 27,32); «Handik barrena zihoan —sorotik etxeraldera— Simon izeneko zirenear bat, Alejandro eta Ruforen aita; eta gurutzea eramatera behartu zuten.» (Markos; 15,21); «Jesus zeramatela, sorotik zetorren Simon izeneko zirenear bat hartu zuten eta gurutzea leporatu zioten, Jesusen atzetik eraman zezan.» (Lukas; 23,26). Ikusiko dugunez, aztertutako herrietan eredu biak ditugu, Azkoitikoak Jesus bakarrik duelarik eta Segurakoak Simon zirenearra ere baduelarik.

Arazo txiki honek estabaidak sortu baditu ere, artean eraginik ez du izan. Batzuentzako, ezinezkoa da Simonen laguntza zuzenbide erromatarrean oinarrituz, beste batzuen ustez laguntza hori beharrezkoa zelarik, zeren Jesus ahulduta egon behar zuen flagelaldiaren ondoren. Lehen esan dugun bezala, artistek eredu biak erabili zituzten, horrelako

(9) ARAMBARRI ETXANIZ, S. *Op. Cit.* 211 orr.

arazoei kasurik egin gabe. Badira, ordea, artean eragina izan duten aldakuntzak. Ebanjelio Apokrifuak jarraituz, *Aurkitzea* sortu zen, Kristo eta Veronikaren arteko aurkitzea. Azken hau, izaterik gabeko Sainda bat dugu, Kristoren sufrimenduaz errukituz, bere bekokiko izerdia belo batekin lehortzen diona. Ondorioz, Aurpegi Saindua belo horretan marraztuta geratu zen, beste paso edo irudi bat sortuz, Veronika izenekoa. Azkeneko bi ikonografi hauek Azkoitian aurkituko ditugu, Seguran ez bait dago horrelakorik.

Kalbario bidean: Azkoitiko pasoan, Jesus bakarrik azaltzen zaigu. Belaunikatuta dago gurutzearen pisuagatik. Herenile gorria darama jantzi bezala eta 1,20 m. neurtzen du. Askotan gertatzen den bezala, aurpegia, eskuak eta oinak bakarrik ditu landuak, beste guztia zurezko armazoia delarik. Honi deitzen zaio «jantzteko irudia». Gehienetan, ilea ere gezurrezkoa izaten da, dena egiazko zentzazioa sortzeko asmoz. Horregatik, gure irazkin gehienak aurpegira zuzenduta joan behar dute, bertan saiatzeko bait da eskultorea batipat. Kasu honetan, ondo lortuta dagoela esango genuke, lasaitasuna lortu bait du bere irudian, barneko bilaketa bat erakusten digularik.

Segurako pasoan, berriz, Simon zirenearra ere azaltzen da, gurutzea atzekaldetik ertsiz, Jesusi laguntzen ari zaiolarik. Hauek ere mende honetako irudiak ditugu, eta biak alde batera begira egon arren, ikuspegi ezberdinak ditu pasoak. Azkoitiko irudian gertatzen zen berala, Jesusek arantzezko koroa darama buruan, bekokaldian odolezko tantak somatzen zaizkiolarik. Sufrimendu haundiko irudia dela esango genuke, jasan dituen guztiak bere aurpegian ikusten bait dira. Horizontera begira badirudi ere, zirenearren begirada barneliluratu dagoenez, garbi dago Jesusen begirada horrek fededunekin harreman bat sortzen duela. Bien jarrera ikusita, zirenearra bigarren plano batetan geratzen da, Jesusen irudiari protagonismo osoa ematen zaiolarik.

Aurkitzea: Lehen esan dugun bezala, gai hau ebanjelio Apokrifoetatik hartuta dago, eta Azkoitian bakarrik aurkitzen dugu (3. lamina). Jesus, gurutzea eramanez doalarik, Veronikarekin topo egiten du, eta honek besoak luzatzen dizkio. Beste irudi batzutan ikusiko dugun bezala, Elgoibarreko San Frantzisko komentutik mende honen hasieran ekarritakoak dira. Ez ziren pasoak, ezta irudi osoak ere, buruak soilik baizik, gero probetxatuak izango direnak. Kristalezko begiak dituzte eta leundurazko polikromia, XVIII. mendekoak gure ustez. Jesusen irudiak 1,60 neurtzen du eta Veronikarenak 1,66m. Jantziak orain ipintzen zaizkienak izan arren, Jesusena morea da eta saindarena urdina gorriaren gainean. Aurpegiei dagokionez, aldaketak jaso badituzte ere, nahiko ondo lortuta daude, saindarena batipat.

Veronika: beharbada irudi hau ez genuke ikusi behar apartatu honen barnean, baina lehen esandakoa gogoratuz, badu lotura gaiarekin. Azkoitian dugu berriro ere adibidea, Sainda honek Aurpegi Saindua erakusten digularik. Beobide eskultoreak egindako irudia dugu, eta esaten dutenez, Kristoren aurpegia Zuloagak pintatutakoa omen da. Beraz, hau ere mende honetako dugu. Minez betetako aurpegia du saindak, barneko tristuraz beteta dagoenarena. Kristoren Aurpegi Saindua, berriz, marrazkia dugu eta bertan arantzezko koroarekin dago, odol tantak erortzen zaizkiolarik.

Gurutzifikatua

Unerik dramatikoenara iritsi gara, Jesusek gurutzean josita bere bizitza ematen duenean; «Gurutzean josi zutenean, txotx egin zuten, Haren jantziak zer norentzat, eta lurrean eserita Hura zaintzen gelditu ziren. Buru gainean, idazkun bat ipini zioten, hoben-ageri



3. Lamina. Azkoitia. Aurkitzea.

bezala: HAU JESUS DA, JUDUTARREN ERREGEA» (Mateo; 27, 35-37). Arteari dagokionez, gurutzea lehen garaietatik erabilia izan bazen ere, Kristoren irudirik ez zen 692. urtean ospatutako Trullo-ko kontzilio arte agertu, Konstantinopolin egina, bertako gomendioak jarraituz. Honek ez du esan nahi Jesusen irudirik ez zenik erabiltzen, gurutzifikatu bezala ez zela aurkezten baizik. Bere irudiari dagokionez, 370. urterarte Christus -Puer bezala azaltzen zen, hau da, oso gazte eta bizarrik gabe, ile motxa eta kirimilatuarekin. Urte horretan, gutxigorabehera, aldatu zen bere itxura, beti ezagutu duguna onartuz. Paso bakarra badugu ere, Segurakoa, ikonografi honi buruz zerbait esatea interesgarria iruditzen zaigu, ezaugarri garrantzitsuenak aurkeztuz (10).

Gurutzeak «stipes» edo makila vertikala eta «patibulum» edo langa ditu bere egituran. Kristoren heriotza azkarra izatea nahi zutenek, ez dirudi «suppedaneum» izeneko edo «sedile» izeneko erabili zituztenik. Lehenengoa, zurezko ziri bat zen eta kondenatuak bertan oinak sostengatu zitzen erabiltzen zen; bigarrena berriz justiziatua bertan esertzeko izaten zen. Artista batzuen artean lehena onartua izan bazen ere, bigarrena ia inoiz ez da erabili. Bestalde, ziurtzat jotzen da Kristo hiltzeko erabili zuten gurutzea «inmissa» izan zela, hau da, lau besoetako. Bi motatakoak izaten ziren gurutze hauek, «humilis» eta «sublimis» izenekoak, bigarrena kondenatu garrantzitsuentzat erabiltzen zelarik. Badirudi, Kristorentzat lehenengoa erabili zela. Gurutze honen neurriak, ikertzailek diotenez, 4 edo 4,50 m. izango zituen altueran eta 2,25 luzez, bere pisua 100 kilotakoa izanez.

Gurutzifikapenean erabilitako iltzei buruz ere badira zalantzak. Done Ciprianok, done Tours-eko Gregoriok eta «sedile» edo «suppedaneum» horietako bat erabili zutela uste dutenaren iritziz, lau izango ziren, oin bakoitzak berea zuelarik. Aintzinako arte lanetan horrela izan bazen ere, XIII. mendean hau aldatu egingo da, hiru bakarrik azalduz, hau da, bi oinetako bat eta esku bakoitzean beste bat. Arrazoa oso garbi ez badago ere, artista gehienak hau onartu zuten, eta batzuk ez ezik, bere irudiak horrela egin zituzten. Pachecoren aleginak lau iltzeak erabiltzearen aldekoak izan arren, Montañes edo Velazquez bezalako artistek onartu zituztelarik bere iritziak, ez zen gehiengoandik jarraitua izan. Segurako irudiak ere, ikusiko dugunez, hiru iltze erabiltzen ditu, mende honetako irudia izan arren.

Jesus gurutzean hilotzale batekin ikustera ohituta bagaude ere, ez da horrela izan beti. Ebanjelioek ez badigute argitzen biluzirik gurutzifikatua izan zen ala ez, bere jantziak soldaduak hartu zituztela esaten digute. Beraz, horrela izan zela suposa dezakegu, done Ambrosiok eta done Agustinek zioten bezala. Ohitura erromatarra hori zen eta hauek epaitu zutenek baliteke hilotzale gabe egotea. Baina dedua zela eta, ia inoiz ez da azaldu hilotzale gabe arte lanetan, eskulturan edo pinturan. Erromanikoa iritsi arte gehienetan «colobium» izeneko tunika batez jantzi zuten, gero orain ikusi dezakegun bezala azalduz. Hilotzalearen formari dagokionez, bi motatakoak izan dezakete: soka batekin lotzen dena edo bira emanaz aldakan bigitza batekin lotzen zaiona. Azken hau da Seguran ikusi dezakeguna.

Lehen esan dugunez, Seguran bakarrik daukagu gurutzifikatuaren pasoa, baina apartatu honen barnean Ama Birjinaren, San Joan Bataiatzailearen eta Maria Magdalena-
ren irudiak ere ikusiko ditugu, azken finean denak zeudelako une horretan, zeren ebanjelioetan irakurri dezakegun bezala, «Jesusen gurutzearen oinean zeuden: bere ama, amaren ahizpa —Kleofaren Maria—, eta Maria Magdalena. Jesusek bere ama ikustean eta,

(10) Gai honi buruz, liburu interesgarri bat badugu, bera jarraituko dugularik batipat. AROCA LARA, A. *El Crucificado en la imaginería andaluza*. Córdoba, 1987. Azpimarragarriena «Elementos de la representación» izeneko kapituluak ditu; 47-78 orr.

han bertan, Berak hain maite zuen ikaslea, honela esan zion amari: Andrea, horra hor zure semea! Eta gero ikasleari: Horra hor zure ama! (Joan; 19,25-27). Beraz, Segurako Ama Birjina eta San Joan Bataiatzailea ere ikusiko ditugu, eta Azkoitiko San Joan eta Maria Magdalena.

Gurutzikatua: Segurako irudia (4.lamina) mende honetakoa dugu, bere egituraz jakin dezakegunez. Hiru iltzez josita dago eta Kristo bizirik dago, bere ezkerretara burua inklinatuta. Hiloihal handia du, ia izter biak estaltzen dizkiolarik. Gora begira dago, Aitari begira egongo balitz bezala. Gorputzaren tratamenduan, apur bat eskematikoa geratu bazen ere bere egilea, oro har, irudi polita dela esan dezakegu. Arantzeko koroa darama, odol tantak erortzen zaizkiolarik eta ahoa piska bat zabaldua duelarik, sufrimenduaren exponente bezala. Biniés-en lanekin gonbaratzen badugu (11), irudi baten aurkezpena mendeetan zehar nola aldatzen den konturatuko gara, gorputzaren tratamenduan eta jarreraren batipat, Segurakoa askoz ere baretsuagoa delarik.



4. Lamina. Seguru. Gurutzikatua.

(11) GARCIA GAINZA, M.C. *Pasos e imágenes...* XVII. mendearen hasierako eskultore honek gurutzikatua egin zituen batipat.

Ama Birjina: Seguran dugu bere irudia, herri horretako elizan alboko erretaula batean egoten delarik, Gurutzifikatu eta gero ikusiko dugun San Joan Bataiatzailearekin batera. Oso egitura fineko irudia dugu, seguraski XVIII. mendekoa, rococo estilokoa gure usitez. Eskuak elkartuta ditu, eta bere gorputzari bira dotore bat emanez, aurpegia bestaldera begira du, erretaulan bere semea dagoen lekura, pasoa bera bakarrik agertzen bada ere. Ez du minik adierazten, edertasun haundiko aurpegia duelarik. San Joanen irudia bezain ona ez bada ere, kalitatezko lana bezala ikusi behar dugu, batipat konposaketari dagokionez, lehen aipatutako bira horrekin lortzen duena.

San Joan Bataiatzailea: Herri bietan ditugu bere irudiak, Segurakoa benetan azpimarragarria delarik. Dokumentazioak esaten digunez, irudi hau XVIII. mendean egina dago, Madrilen hain zuzen ere, zeren «mandado hacer en dha Corte de Madrid que se reduce a caveza, Manos, pies, Armazon y vestido de seda u otra tela, y su traida, despues que estubiese perfeccionada de encarnacion y de mas que necesitare» zegoela dakigu 1750. urtean (12). Irudia ikusterakoan (5.lamina), garbi dago aipatutako nahi hori beteta ikusi



5. Lamina. Seguru. San Joan Bataiatzailea.

(12) Gai honi buruz, *Monumentos Nacionales de Euskadi*, II. tomoa, *Guipúzcoa*. Bilbo, 1985. 376 orr. CENDOYA ECHANIZ, I. «Tomás de Jáuregui, maestro retablista guipuzcoano del siglo XVIII Aproximación a su obra», B.S.A.A. (prentsan).

zutela, kalitatezko lana lortu zelarik. Egilearen izena ez badugu ere, Salvador Carmonaren jarraitzaile bat agian, benetan lan bikaina egin zuela esan beharrea aurkitzen gara. Urru-nera begira dago, edertasun haundiko aurpegia duelarik; eskuak, berriz, adierazkortasun haundikoak dira. Gipuzkoan irudi eder asko baditugu ere urte hauetan, hau beraien artean kokatu behar dugula nahiko garbi dago.

Azkoitian dugun irudia, berriz, mende honetakoa dugu, eta nahiko txarra dela esatera auzartuko ginateke. Zurezkoa ere ez dugu, eta bere atzean «Pedro Ruiz (Vitoria)», idatzita dago. Eskuz egina ez denez, arte aldetik ez du garrantzi handirik. Edozein kasutan ere, ikonografi aldetik ari garenez gehienbat, hemen sartu beharrea gaude. Eskuak bularrean gainean ditu eta gora begira dago, ahoa apur bat zabalik duelarik. Aurpegi polita du, eta ziur gara fededunen gustokoa izango dela, baina lehen esana errepikatu beharrea aurkitzen gara: arte aldetik balio txikia du.

Maria Magdalena: Azkoitian dugu irudi hau (6.lamina), eta bere burua Elgoibarretik ekarrita dago, San Frantzisko komentutik aterata. Eraberrituta badago ere aurpegia, XVIII.



6. Lamina. Azkoitia. María Magdalena.

mendekoa dela esango genuke. Bere neurria 1,61 m. da, eta jantziei dagokionez, askoz ere gerokoak izan arren, urdina eta arrosa direla esango dugu. Burua soilik axola zaigunez, gezurrezko ilea duela eta aurpegian jaso duen bernizek ez digula gehiegi laguntzen bere ezaugarriak azaltzerakoan argituko genuke. Tristuraz betetako begirada du eta gezurrezko ile horrek eta jasotako pinturak, gustiz aldatzen du aurpegiaren esannahia, lan kaxkar bat bihurtuz irudi hau.

Atsekabea

Apartatu honen barnean «jaitsiera», «hiletak» eta «hileta saindua», sartzen dira, denak Kristoren heriotza gerta ondorekoak. Jaitsierari dagokionez, IX. menderarte ez zitzaizgun artean azaldu. Honen arrazoia, Palomerok esaten digun bezala, bere garrantzirik ezeza liturgian dugu. Hiletak edo erostak XII. mendean hasiko dira errepresentatzen. Kristoren gorputza jaitsi ondoren, Ama Birjinaren besoetan utziko da, Pietatea izeneko irudia sortuz. Azkenik, Pilatoren baimena lortu eta gero, Arimateako Josek, izara batetan bilduko du Kristoren gorputza eta lurperatu egingo du kalbariotik hurbil zuen hilobi batetan.

Aztertutako herrietan ditugun pasoak kontuan hartzerakoan, ikonografi guzti horiek ez direla azaltzen ikusten dugu, jaitsiera falta zaigularik. Pietateari dagokionez, herri bietan ditugu, Azkoitikoa oso interesgarria delarik. Herri honetan, gainera, badugu Mingarria izeneko pasoa, bere ikonografiari buruz gero hitz egingo dugularik. Azkenik, eta gure ikerketara amaitzeko, badugu baita ere Azkoitian «Kristo etzanda» izeneko pasoa, bi herrietako pasorik zaharrena. Harrigarria badirudi ere, hasieran esan dugun bezala, berbizkudearen irudirik ez dugu, zentzu dramatikoak azpimarratzen delarik batipat prozesio hauetan.

Pietatea: Azkoitiko irudiarekin hasiko gara, eta benetan azpimarragarria dela esan beharrean gaude (7.lamina). Elgoibarreko San Frantzisko komentutik ekarrita gaude eta gero paso batetan bihurtu direnez, oso irudi ezberdinak direla kontuan hartu beharko dugu. Ama Birjinaren iridiaren burua soilik axola zaigu, Kristoren irudiarekin berdin ez delarik gertatzen. Lehenengoa XVIII. mendekoa izan dezake, aurpegiaren egiturak erakusten digunez, oso aldatuta badago ere. Kristoren irudia, berriz, XVII. mendekoa da eta berez Gurutzifikatu bat zen, artikulatua gainera. Artikulatua dela esaterakoan, honelakoa da bere esannahia: jaitsieraren erakuspena egiteko erabiltzen zela. Arrazoi honegatik, ez gara harritzen Kristo bizirik dagoela ikusterakoan, begiak erdi zabalik eta ahoa ere apur bat, ia hiltorian egongo balitz bezala (13).

Segurako pasoa mende honetakoa dugu eta gaiari dagokion bezala, Kristo hilik azaltzen da, bere Amak esku batetik eusten diolarik. Jesussek hilotzaz luzea du eta hegaleko zauria erakusten digu. Ama Birjinak, berriz, minez betetako aurpegia du, sufrimenduz betetako eskema bat konposatuz. Mariak, bularrean gainean bihotz bat dauka, zazpi espatez zeharkatuta. Bere esannahia zazpi Doloreak gogoratzea da, bere arima zeharkatu zituztenak: Simeonen profetia, Egiptorako ihesa, tenpluan Jesus galtzerakoan, Samindurako kalean, Gurutzifikapenean, jaitsieran eta Kristoren hilobiratzean. Oso paso polita da, baina bere kalitatea ona izan arren, Azkoitikoa baino balore txikiagokoa.

Mingarria: Azkoitian dugu bere irudia eta ohizkoa den bezala, zaia eta mantu beltzak ditu. Dirudienez, jantzi horren arrazoia Felipe II. garaiko arropak jasotzen direla da, eta ez

(13) Bere neurriak honelako hauek dira: Ama Birjinak, 1,28 m. ditu eta Kristoren irudiak 1,70 m.



7. Lamina. Azkoitia. Pietatea.

jantzi hebraitarrak (14), honela izan beharko balu ere. Mende honetakoa delakoan gaude eta bere arropatako brodatuaz gain, aurpegiko sentimendua aipatuko genuke. Halere, oro har, kalitatezko lana ez dugula esan dezakegu. Burua pixka bat alderatuta dauka eskuinera, eta eskuetan aberastasun handiko zapi bat du. Gai honetako irudiak katalogatzea nahiko zaila izaten bada, bere ezaugarriak aurkeztea ere bai.

Kristo etzanda: dirudienez, irudi hau (8.lamina) XVI. mendeko erdialdean egina dago. Irudiaren neurriari dagokionez, 2 m. ditu, eta zerraldoak berriz 2,35 m. Gorputza ez dago ondo modelatua, xehetasunik jasotzen ez delarik. Bere egilea ezezaguna bada ere, garbo dago bere interes guztia Kristoren aurpegian zegoela. Sudur zorrotza du, bekain meheak eta ondo marraztuak. Azkenik, gezurrezko ile eta bizarrak egiazko itxura ematen diote, kontuan harturik gorputz gehiena estalita duela. Bi herrietako pasoen zikloa hemen bukatu behar dugu, geroagoko eskenarik ez bait dago.



8. Lamina. Azkoitia. Kristo etzanda.

* * *

Konklusio gisa, Aste Sainduko paso hauen helburua garbi azaltzen dela esan dezakegu, fededuna hunkitzea. Horretarako, une dramatikoena aukeratuko dira Jesusen pasioari eta heriotzari dagokionez. Azken finean, egun horietan ospatzen ziren emanaldiak

(14) GONZALEZ GOMEZ, J.M. eta RODA PEÑA, J. *Op. cit.* 116 orr.

gogoratu besterik ez daukagu, gertatutakoak oroitz. Ez da harrizkoa Azkoitiko Kristo artikulatu hori —orain beste betebeharrak badu ere—, funtzio hori bait zuen. Emanaldi horiekin zerikusirik handia dute Frantziskotarrak eta beraiei hain lotua egon zen Vera Cruz» izeneko kofradiak, batipat XV. eta XVI. mendetan. Gero, parrokiak eta komentu guztietan egingo ziren emanaldi horiek, Jesusen sakrifizioa gogoratuz. Beraz, badute zerbait teatrala paso hauek, bere aurrekoa antzezpen horietan dagoelarik. Gaiak aukeraketak ere badu lotura funtzio horrekin. Hemen ikusi duguna adibide bat besterik ez litzateke izango. Baina ezinezkoa da bere benetako helburua ahaztea. Arrazoi hau dela eta ikusi ditugu ikonografia aldetik, baina estiloa albo batera utzi gabe, zeren gogoratu besterik ez daukagu Azkoitiko Pietatea, Kristo etzanda edo Segurako San Joan, besteak beste.